

Alpinismo olímpico

ARGI dago mendia kirol olinpikoen jarduteko eremu ezinhobea dela. Pierre de Coubertinek, Joku Olinpiko modernoan "babeslea", argi ikusten zuen hau. Hartu zuen lema ospetsu hura, "Citius, altius, fortius" delakoa, ia literalki itzuli dezakegu mendietara igoten ahalegintzen garenean "arinago, gorago eta indar handiagoaz". Eta berari egotzen zaion esaldi maskal hori, sekula berriro esango ez dudana: "Garrantzitsua, lehiatzea da", guk sarri errepikatzen dugun beste esaldi honetara itzultzen badugu ere "Garrantzitsua, mendian egotea da".

Coubertin ahalegindu egin zen alpinismoa Jokuetara hurbiltzen, horrela Jokuek izaera "liluragarriagoa" hartuko zutelakoan baitzegoen. Horrexegatik sortu zuen garaikur olinpiko bezala mendi-ekintzarik nabarmenari zuzentzen zitzaion "Alpinismoaren domina". Lehen domina, eta aldi berean inoiz eman den bakarra, Bruce Everestera 1992. urtean antolatu zuen espediziorako izan zen. Baina asuntua hain konplikatu suertatu zen ezen handik urte batzutura Coubertinek berak erretiratu zuen emandako domina, beste arrazoi askoren artean "hain balentria handia sekula errepikatuko ez zelako". (Ez zuen asmatu, ez horixe, geroago egin dena ikusita).

Zorte handiagoa izan zuen antzerako beste jarduera batek, mendi elurtuan egiten dena berau: eski militarra edo patruila-eskia. Olinpikoa izan zen 1924 eta 1928an eta gero erretiratu egin zen 1968an berriro kontutan hartua izan arte, biathlon bezala: iraupen-eskia eta tiroa.

Kirol-eskaladak ate handitik izan dezake sarrera. Praktika-baldintza guzti-guztiak betetzen ditu herrialde askotan, lehiakide

ugari, emakumezkoen partaidetza, eta abar. Oztopo bakarra zera da, ez dagoela lekurik Olinpiadetan. Onartu daitezkeen 35 kirolen kupoa beterik dago eta ez da onartzen eskaerarik bat ere, gaur egungo kirolerarik bat ordezkatzeko ez bada. Ematen du hau ez dela lortuko 2016 urterarte. Eta egunen batean izotz-eskaladak jarraitu ditzake kirol-eskaladaren urratsak.

Gutxienena bada ere, mendi-eskia edo eski-alpinismoa hurbilago dago sartzeko. Neguko Jokuetan lekua dago modalitate berrietarako eta mendi-eskiak bete ditu falta zitzaizkion bi baldintzak: 25 herrialdetan praktikatu izatea eta aurretik mundu-txapelketa bi ospatu izatea. Seguru asko, laister izango da onartua.

Hortxe dago UIAA delakoa bultzatzen egiten batetik eta bestetik eta hortik hurbiltzen ari da EMF ere bere lekua okupatzera: "UIAA Climbing" delakoan sartu da, Dima Rockmaster ospatu du, gure eskalatazaileen agerraldiak ikusgarriak suertatzen ari dira..... Eta bitartean, Olinpiaden inguruan mugitzen diren komunikabideen bultzada aprobetxatuz, agertu egiten da 2008 urterako alpinismoaren eta olinpismoaren lokarri zorionsua izango den ekintza bat: zuzi olinpikoa, Greziako Olinpotik Jokuen egoitza izango den Pekineraino joan eta maiatzean Everesteko tontorretik pasatuko da, aldi berean bi isurialdeetatik ingongo delarik, tibetarretik eta nepaliarretik. (Edonola ere, gaurko estandarren arauera, zuziaren igoera Everestera gutxietsia izango da, zeren oxigeno artifiziala erabili beharko baitu tontorrera heltzeko, itzali nahi ez badu airean dagoen oxigeno-kontzentrazio eskasagatik).

Alpinismo olímpico

PARECE claro que la montaña ofrece un excelente campo de actuación para los deportes olímpicos. Lo veía muy claro Pierre de Coubertin, el "patrón" de los Juegos Olímpicos modernos. El famoso lema que adoptó de "Citius, altius, fortius" lo podemos traducir casi literalmente cuando intentamos subir a las montañas "más rápido, más arriba y con más fuerzas". Aunque la manida frase que se le atribuye, y que yo prometo no decir nunca más: "Lo importante es competir", nosotros la traslademos a nuestro repetido "Lo importante es estar en el monte".

Coubertin intentó acercar el alpinismo a los Juegos pensando en que adquirirían con ello un carácter "más fascinante". Por eso creó como un trofeo olímpico la "Medalla del Alpinismo", a la actividad montañera más destacada. La primera - y de hecho la única que se concedió - fue a la expedición de Bruce al Everest en 1922. Pero el asunto resultó ser demasiado complicado, tanto es así que unos años después el propio Coubertin retiró la medalla concedida, entre otras muchas razones "porque nunca se repetiría tan gran hazaña". (Lo cual no fue una profecía muy atinada, viendo lo que se ha hecho después).

Más suerte tuvo una actividad aneja, ejercida en el monte nevado: el esquí militar o esquí de patrulla. Fue olímpico en 1924 y 1928 y luego se retiró hasta que volvió a incluirse en 1968, como biathlon: esquí de fondo y tiro.

La escalada deportiva puede tener una entrada por la puerta grande. Cumple absolutamente todos los requisitos de práctica en

muchos países, numerosos competidores, participación femenina, etc. El único obstáculo es que no hay sitio en las Olimpiadas. El cupo de 35 deportes admisibles está cubierto y no se admite ninguna solicitud si no es a cambio de sustituir a alguno de los deportes actuales. Parece que esto no se conseguirá hasta 2016. Y algún día la escalada en hielo quizá pueda seguir sus pasos.

A pesar de ser más minoritario, el esquí de montaña o esquí-alpinismo está más cerca de entrar. En los Juegos de Invierno hay sitio para nuevas modalidades y el esquí de montaña ha cumplido ya los dos requisitos que le faltaban: ser practicado en 25 países y celebrar dos campeonatos mundiales previos. Probablemente pronto será aceptado.

Ahí está la UIAA empujando por unas y por otras y ahí se acerca la EMF a ocupar su plaza: inclusión en el "UIAA Climbing", celebración del Dima Rockmaster, brillantes actuaciones de nuestros escaladores... Y mientras tanto, aprovechando el tirón de los medios de comunicación que rodean a las Olimpiadas, se presenta para las de 2008 una actividad que se anuncia como el feliz ayuntamiento entre alpinismo y olimpismo: la antorcha olímpica, que irá desde el Olimpo de Grecia hasta Pekín, sede de los Juegos, pasará durante el mes de mayo por la cima del Everest, ascendida simultáneamente por las vertientes tibetana y nepalesa. (De todas formas, según los estándares actuales, la ascensión de la antorcha al Everest está minusvalorada, porque tendrá que usar oxígeno artificial para llegar a la cumbre, si no quiere apagarse ante la escasa concentración de oxígeno del aire).